

Iruñeko lehena etxeratzea xede

Hainbat nobedade ditu Bertsolari Txapelketa Nagusiko aurtengo finalak: Iruñea kokaleku, hiru aurpegi berri eta hiru andre kantuan • Iñaki Muruak jarriko dio txapela irabazleari

Uxue Rey Gorraiz | Iruñea

Nafarroa Arenako harmailak hutsik dira oraindik. Berdin dago kantxa luze-zabala ere. Eta isilik. Eta hotz, nabarmen; baina ez luze-rako. Lau egun baizik ez dira falta Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako, eta oso bestelako giroa izanen da orduan pabiloian. 13.000 zale inguru bilduko dira, belarriak zorrotz, sailkatutako zortzi bertsolariak kantuan adituzko: Aitor Mendiluze, Alai Martín, Amets Arzallus, Beñat Gaztelumendi, Joanes Illarregi, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina. Bada zer jokoan: Iruñean jokatu den lehenbiziko finaleko txapela.

Garai «konplikatu» baten ondoko txapelketa izaten ari da aurtengoa, Bertsolare Elkarte ordezkarikari Gontzal Agoteren iritziz. Azaldu duenez, ederki joan dira aurreko hamahiru saioak, eta susmo bera hartzen dio finalari ere: «Plazetan gertatzen ari diren gauza asko gertatu dira txapelketan, eta uste dugu badirela baldintzak horixe bera gertatzeko igandean ere. Edera izango da».

Agotek xehe azaldu du zer diren «plazetan gertatzen ari direnak». Besteak beste, «aniztasuna» aipatu du, «bertsokeran, gaien heldulekuetan, ertzak bilatzeko maneretan, bide berritzaileak urratzean ekarpenak egiteko ahaleginean, gaitegian, norberaren begiradaren gaineko lanke-tan...». Dago horiek guztiak ere ikusiko direla Nafarroa Arenan.

Bertsolare Elkarte ordezkarikari Oier Iurramendik aletu ditu saioari buruzko ohar nagusiak. 9:00etan irekiko dituzte pabiloiko atek, eta 11:00etan hasiko da finala. Aurreikusitako 14:30erako bukatuko dela finalaren lehenbiziko zatia, eta etenaldia egiten dute orduan, bazkaltzeko. 17:00etan hasiko da arratsaldeko bertsaldia, eta, aurreikuspen araberako, 20:30erako espero dute

INFORMAZIO BALIAGARRIA

Garraioa.

Guztira, 2.600 bertsolarentzako autobusak antolatu ditu martxan Bertsolare Elkarteak. Beren webgunean emanen da geltoki eta ordutegi berri. Autoz joan eta Iruñean sartzeko A15 autobidea baliatuz gero, gomenatu dute 83 edo 83B irteerak erabiltzeko.

Nafarroa Arenan.

Pabiloiko zona bakoitzak bere sarbidea du, eta ezinen da eremu batetik bestera mugitu. Informazio guinea A atearen ondoan izanen da; eraso matxisten kontrako puntu morea ondoan egonen da. Haur txokoa ere antolatu dute, pista dagoen solairuan.

Bazkaria.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan menua eskainiko da 24 euroan; bihar arte dago zabalik izen emateko epea. Janaria etxetik darabatenek Sagar estadioan bazkaltzen ahaliko dute, estalpean. Bertako taberna eta komunak erabilgarri izanen dira.

Telebista.

Nafarroa Arenara bertaratu ezin direnentzat, BERRIAK, ETB1ek eta www.bertsoa.eus atariak oso-osorik eskainiko dute finala zuzenean.

bukatzea. Ondotik, sari banaketa eginen da. Iragarria zenez, Iñaki Muruak jarriko dio hura irabazleari. Halaber, gainerako garaikurrak Irantzu Idoatek, Sagrario Alemanek, Edurne Azkaratek eta Paulu Zeddak emanen dituzte.

Esangura handiko finala

Maialen Lujanbio jantzi zuten txapela azkeneko. Sebastian Lizasok bururatu zion hura, 2017ko abenduaren 17an, Barakaldoko (Bizkaia) BEC erakustazokan. Orduko txapelduna izanik, herna-

niarrak segurtatua izan du aurtengo finalean aritzea, eta orain arte ez du kantatu txapelketan. Iruñeko finala noiz iritsiko zain izan da hasiera-hasieratik, bertokide nor izanen zuen ez zekielako. «Bertsolagunetik enpatiaz, zorabio emozionalak jota eman dut aldi hau», esan du, alai. Izan ere, aitorenaren atzean ez da penarik, onartu duenez: «Ez didate inbidia handirik eman udazken honetan». Argitu du «suertetzat» daukala zuzenean sailkatzea. Hori mesede edo traba den pentsatzeak ez dio burua nekatu.

Baikor mintzo da Lujanbio. Segurtatu du egun «ederra» izanen dela, «esangura politiko handikoa». Bi arrazoiri egotzi die hori: kokalekuari eta taldearen osaketari. «Finala Iruñean izatea oso planteamendu garrantzitsua da bertsogintzaren partetik, eta, oro har, euskalgintzari lotuta. Horrez gain, nik suerte bezala bizi dut talde honen parte hartzea. Batetik, gazte jendearen eta jende helduagoaren katearen irudikapena gertatzen delako, eta, bestetik, lehenbiziko aldiz, hiru emakume arituko garelako kantuan».

Orain arteko gozo-gaziak

Ez Lujanbio adina denbora, baina finalean diren beste bertsolari batzuei ere egokitu zitzaizen beren txanda noiz iritsiko zain izatea zenbait astez. Finalaurrekoetan hasi ziren kantuan Aitor Mendiluze, Amets Arzallus, Beñat Gaztelumendi eta Sustrai Colina. Besteak beste, Mendiluzek garbi aitortu du tarte hori «luze» egin zitzaioela. Baina ailegatu zitzaion ahots koradak berotu eta bertsotan hasi beharra, eta «nahiko konforme» da egindakoarekin. Mendiluzek seigarren finala du aurtengoa, txapeldunorde izan zen 2017koan, eta argi du oraingoan zer nahi duen erdietsi: «Urte hauetan landutakoa islatzen saiatuko naiz. Uste dut lortu dudala egonbarria eta nor-tasuna, eta erakutsi nahi ditut nire



Ausardia izan nahi dut, beste belaunaldi baten lekutik kantatzeko, beste proposamen batzuk aurkezteko»

Nerea Ibarzabal
Bertsolaria

«Gozatzeko momentuak izan ditut, baina baita izerdi tantak kopetatik behera botatzekoak ere»

Jaones Illarregi
Bertsolaria

izaera, bertsokera, eta oholztan eta taldean egoteko nire modua».

Amets Arzallusek azaldu du finalera arteko bidea nahi baino malkartsuagoa egin zaiola. «Mendikate bat zeharkatzea bezalako izan da. Mendikatean, orotariko paisaia ikusten baituzu. Nahiko kritikoa eta zorrotza naiz neure buruarekin, eta gozatu egin dut, baina sufritu ere bai; bietatik izan dut». Aurreko faseko azken saioan aritu zen kantuan Arzallus,



Astintzen nauten gaien buruz kantatu nahi dut. Horiei ihes egin baino gehiago, horiei leku bat egin, eta heldu»

Alai Martín
Bertsolaria

«Bakoitzak baditu bere haria eta ahotsa, eta nik ez ditut horiek galdu nahi. Bai, agian, korapilo berri batzuk bilatu»

Amets Arzallus
Bertsolaria

Bilbo izan zuen azken mendi ton-torra, eta, dioenez, «arnasaz» ateratzen hortik. Igandeari begira, «bere ahotsa» abandonatu gabe nahi du aritu, «pentsamendu ahalik eta birziklatuenarekin». «Uste dut bakoitzak baduela bere haria eta ahotsa, eta nik ez nituzke horiek galdu nahi, baina bai, beharbada, korapilo berri batzuk bilatu». Bosgarren aldiz arituko da finalean, eta irabazi egin zuen 2013koa.



Bertsolagunekiko enpatiaz, zorabio emozionalak jota eman dut aldi hau, baina ez didate inbidiarik eman»

Maialen Lujanbio
Bertsolaria

«Urteetan landutakoa islatzen saiatuko naiz: nire izaera, bertsokera, eta oholtzan eta taldean egoteko nire modua»

Aitor Mendiluze
Bertsolaria

Beñat Gaztelumendi hirugarren aldiz arituko da finalean; zorroneko sentitzen da horregatik, eta, dioenez, egindakoak ikusita, pozik du barrena. «Egin nahi nukeen horretara hurbildu naiz ariketa dezentetan, eta, orain dela bost urteko txapelketarekin alderatuta, finalera beste gorputzaldi batekin iritsi naiz». Uste du azkenaldian eginiko lana dela horren erantzule nagusia, baina ez bakarra: «Aritu izan naiz neure burua

Ez daukat dudarik nire kideek eztanda artistiko batera eramango dutela plaza, eta nik ere izan nahi dut horren parte»

Sustrai Colina
Bertsolaria

«Orain dela bost urteko txapelketarekin alderatuta, beste gorputzaldi batekin iritsi naiz finalera»

Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

mugatzen. Aurtan, saiatu naiz muga horiek kentzen, eta ikusten noraino iritsi naitekeen». Orain arteko saioetan hartutako «gozatua» aipatu du Alaia Martinek. Hirugarren txapelketa du hau, eta lehen finala. «Gauza asko esateko gogoia geratzen zait», ohartarazi du finalari so. «Astintzen nauten gaiei buruz kantatu nahi dut. Horiei ihes egin baino gehiago, horiei leku bat egin eta heldu». Halaber, azaldu

du pertsonaiei «kolorea» ematen saiatu dela, eta saiatuko dela, «lehen puntutik azkenera arte». «Bukaerara iristeko bide bat baino gehiago, bertsoa izan dadila bere horretan bidaiatxo bat».

Belaunaldi berriak

Joanes Illarregik bere lehenbiziko txapelketa nagusian erdietsi du finalerako sailkatzea, eta nekez disimula dezake lortutakoak dakarkion poza. Orain, txapelketa «borobiltzea» baizik ez zaio falta. «Esperantzaz eta konfiantza osoz» dago. Dena dela, onartu du txapelketan guztia ez dela izan alegria: «Gozatze momentuak izan dira, baina baita izerdi tantak kopetatik botatzekoak ere». Bera da txapelketa Bertsozale Elkarteak antolatzen duenetik finalerako sailkaturiko lehenbiziko nafarra.

Nerea Ibarzabalek «arduraz eta kontzentraturik» kantatzea jarri dio baldintza bere buruari. Findua du hori erdiesteko teknika: «Saiatzen naiz egokitzen zai-

dan pertsonaia izan dezan emozio gama bat nolabait hari konektatzeko aukera emango didana. Horrela, sentitzen dut hitzak errazago etortzen zaizkidala». Eta kantatuko dituen hitzak zer esateko nahi dituen, zer demostratzeko desio litzuzkeen ere aski garbi du bizkaitarrak. Kideei begiratu die azalpena emateko, eta ausardiari loturiko asmoa esplikatatu du ondotik: «Pila bat ikasi dut zuei entzunez, baina ausardia sentitu nahi dut beste belaunaldi batzuen lekutik kantatzeko, beste proposamen batzuk aurkezteko. Txapelketan eta hortik kanpo. Ez izateko imitazio sofla».

Ez baita guztizko hausturarik 2017ko eta aurtengo finalaren artean, baina bai bistako itxuraldaketarik. Hausnarketa hori ere plazaratu du Sustrai Colinak. «Argazki hau ez da orain dela bost urtekoa». Aurrepigieta eta bertsokera diferenteak, beste sabai baten pean gainera. Eta zentzumenak astintzeko moduko

saioa espero du Colinak. «Ez daukat dudarik nire kideek eztanda artistiko batera eramango dutela plaza hau, eta, pertsonalki, nik ere izan nahi izan eztanda horiei jarri dakizkiokkeen adjektibo guztien parte, eta neurea jarri».

Colina seitan ailegatu da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera, eta inoiz baino «libreago eta ausartago» sentitzen du bere burua orain. Halaber, esan du lehia «norbere buruarekin» izanen dutela bertsolariek. «Bestekin bainoago». Baina txapel bakarra da Iruñean ematekoa.

Bertsolariei ariketatarako gaiak emateko zereginetan, lau gai jar-tzaile ariko dira igandean: Alaitz Rekondo, Aritz Bidegain, Idoia Anzorandia eta Ion Zaldúa. Berriz, bederatzi epaile arituko dira puntuak banatzeko: Ainhoa Sarasua, Aitor Jimenez, Amaia Otxotorena, Eneko Bidegain, Eneritz Azkue, Joseba Beltza, Joseba Santxo, Miriam Juaristi eta Nerea Bruño.

EGITARAUA

09:00. Ate irekitzea. Ezinen da sartu objektu puntadunik, beirarik, latarik, alkoholik edo sua piztu dezaketen objekturik. Saclar estadioko kontsignak erabilgarri izanen dira 8:00etatik 13:30era.

Goizeko saioa.

11:00. Hamabost bertso puntuagarri izanen dira. Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian. Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian. Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian. Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean. Ganbarako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

14:30. Bazkarirako etena.

Arratsaldeko saioa.

Lehen zatia. 17:00etan hasita. Hamar bertso puntuagarri. Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian. Binaka, gaia emanda, zortziko txikian, puntutan, zortzi bertso osatu arte. Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Buruz burukoa. Hamar bertso puntuagarri. Binaka, gaia emanda, hiruna bertso iparragirre abila dela doinuan. Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian. Ganbarakoan, banaka, hitza gailzat emanda, bertso bat bederatzi txikian, eta, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.